

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

2/2025 Foru Agindua, urtarrilaren 9koa. Guardiako Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren aldaketa puntualari buruzko ("2. eremua: La Barbacana") ingurumen txosten estrategikoa ematea

Guardiako Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren (aurrerantzean, HHBPB) aldaketa puntuala izapidetzeko, ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura bete behar da, Ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen eta Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen bidez arautua.

Prozedura horren esparruan, Arabako Foru Aldundiko Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Sailak (egungo Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saila) ingurumen agiri estrategikoa jaso zuen Guardiako Udalaren aldetik, Ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen bidez araututako gutxieneko edukiaren arabera, bai eta planaren zirriborroa ere.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, arestian aipatutako dokumentazioa jaso ondoren, 2024ko abuztuaren 13an ukitutako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko faseari ekin zion, eta hilabeteko epea ezarri zuen horretarako (21/2013 Legearen 30. artikulua eta 10/2021 Legearen 75. artikulua).

Kontsulten aldia amaitutakoan, txosten hau egin du Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, Arabako Foru Aldundiko Natura Ingurunearen Zuzendaritzak hala eskatuta.

Ebazpen honen oinarri den ingurumen txosten estrategikoa 2024ko abenduaren 12an eman du Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak (24/101 espedientea).

1. Guardiako HHBPBaren aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aztertutako aukerak

1.1. Guardiako HHBPBaren aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena:

Guardiako Udala Osakidetzarekin elkarlanean ari da herrian osasun zentro berri bat ezartzeko. Zentro horrek biztanleen lehen mailako arretako beharrei erantzungo die, eta zerbitzu medikoak, pediatrikoak, erizaintzakoak eta fisioterapiakoak eskainiko ditu.

Zentrorako aukeratutako kokapena La Barbacana eremuko lurzatia da. Hirigune historikotik gertu dago, ibilgailuentzako eta oinezkoentzako sarbide baldintza onak ditu, eta Osakidetza egindako plan funtzionalaren baldintzak betetzeko behar adinako espazioa du; horregatik aukeratu da.

Horrela, bada, aldaketa honen helburua da zona ekipamenduetara bideratzeko behar den kalifikazioaz hornitzea, eta tartean, lehentasunezkoztat, erabilera sanitarioa egongo da, eta, zeharka, Guardiako hirigune historikoaren ekialdeko ertzaren irudia berreskuratzea.

1.2. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa:

Eremua Guardiako hirigune historikoaren hego-ekialdeko muturrean dago. Iparraldean eta mendebaldean hirigune historikoaren gainerako hiri bilbearekin egiten du muga, eta hegoaldean eta ekialdean Cuesta Barbacana kalearekin. Eremua partzialki urbanizatuta eta eraikituta dago. Lau mailako lurpeko aparkalekua du, 400 plazarekin; hirugarren adinekoentzako etxebizitza komunitariorako eraikin bat; Guardiako urmael zeltiberiarerako museo bihurtutako espazio bat erdisotoan; eta hainbat hiri ekipamendu eta altzari dituen plaza bat.

Katastroaren aldetik, aldaketak Guardiako udal mugarteko 1. industrialdeko 1466, 1469, 1472 eta 1474 lurzatiei eragiten die, bai eta erabilera eta jabari publikoko bidearen zati mugakideei ere (Cuesta Barbacana kalean eta La Cigüeña ibilbidean), gutxi gorabehera 7.100 m²-ko hedadurarekin.

Irudi honetan, urdinxkaz eta laranjatuz irudikatzen da aldaketaren eremua:




1.3. Aztertutako aukerak:

Sustatzaileak aurkeztutako agiritan azaltzen denez, hiru aukera hartu dira kontuan. Hona hemen, laburbilduta:

| AUKERA | ABANTAILAK | DESABANTAILAK |
|---|---|--|
| <p>0. aukera: La Barbacana eremuaren egungo antolamenduari eustea (ez hautatua) La Barbacana eremuan osasun zentro berria jartzeko, HHBPBaren egungo antolamenduarekin, aurreikusitako bizitegi eraikinaren etxabeetan ezarri behar da.</p> | <ul style="list-style-type: none"> — Hirigune historikoko hiri bilbetik sartzea. Ibilgailuentzako sarbidea ondoko bidetik (Cuesta Barbacana), larrialdietako ibilgailuak sartzeko eta aparkatzeko aukerarekin. — Erabiltzaileentzako aparkalekua (Cuesta Barbacana, San Martin bidea). — Hirigune historikoko zona degradatu hori lehengoratzen laguntzea. — Programa osoa solairu bakar batean garatzea. | <ul style="list-style-type: none"> — La Barbacana eremuko hirigintza antolamenduak 1474 katastro lurzatian etxebizitza eraikin bat eraikitzea aurreikusten du. Hala ere, egiturazko murrizketak eta irisgarritasun beharrak direla eta, eraikin horren beheko solairuak ez du osasun zentro berri bat hartzeko behar adina espazio. Proposatutako eraikinaren beheko solairuak 1.300 m² eraiki inguru izango lituzke. Dena den, atari, instalazio gela, trasteleku eta abarretarako espazioak kontuan hartuta, eremu hori nabarmen murriztuko litzateke, eta horrek zaildu egingo luke osasun zentro berrirako espazio funtzional koherente bat sortzea. — Hirigunearen iparraldeko oinezkoen sarbideak osasun zentrora sartzeko beheko solairuaren kotara iritsi behar du. |

Irudi honetan, 0. aukeraren planoak ageri da, sustatzaileak emana:



| AUKERA | ABANTAILAK | DESABANTAILAK |
|--|--|--|
| <p>1. aukera: Mugimendu eremu osoa ekipamendu komunitario gisa kalifikatzea (hautatua) Aukera horretan, mugimendu eremu bat mugatuko da, ekipamendu komunitario bat edo batzuk kokatzeko. Bolumenen behin betiko antolamendua xehetasun azterketa baten bidez zehaztuko litzateke.</p> | <p>0. aukeraren deskribatutako abantailak gain, honako hauek gehitu dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> — Osakidetzak prestatutako programa funtzionala ezartzeko behar besteko azalera, ez baitago egoitza eraikinaren sarbideak, instalazioak eta atariak baldintzatuta. — Malgutasuna zona antolatzean, etorkizuneko beharretarako. — Osasun zentroaren etorkizuneko proiektuaren programara erraz egokitzeko aukera ematen du. — Oinezkoentzako zuzeneko sarbidea osasun zentroaren sarrerako kotara, hirigune historikoko hiri bilbetik. | <p>— 2001ean onetsitako plan bereziaren aldetean ezarritako bizitegi antolamendua ezabatuko da (eraiki ez diren 36 etxebizitzarako edukiera), eta ekipamendu komunitarioaren erabileraren barruan zuzkidura bizitokiak eraikitzeak aukera egongo da, etxebizitza iragankorreko formula gisa.</p> |

Irudi honetan, 1. aukeraren planoak ageri da, sustatzaileak emana:



| AUKERA | ABANTAILAK | DESABANTAILAK |
|--|---|--|
| 2. aukera: Bi mugimendu eremu ekipamendu komunitario gisa definitzea (ez hautatua) | <p>0. aukeran deskribatutako abantailaz gain, honako hauek gehitu dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> — Ekipamendu komunitarioko bi bolumen bereizi sortzea, osasun zentroaren beharren programa banatuta. — Osakidetzak prestatutako programa funtzionala ezartzeko behar besteko azalera, ez baitago egoitza eraikinaren sarbideek, instalazioek eta atariak baldintzatuta. — Osasun zentroaren etorkizuneko proiektuaren programara erraz egokitzeko aukera ematen du. — Ekipamendu bolumenen artean pasabide libre bat ezartzea bermatzen du, hiri bilbearen loturak errazte aldera. | <ul style="list-style-type: none"> — Aurreko aukeran bezala, 2001ean onetsitako plan bereziaren aldaketan ezarritako bizitegi antolamendua ezabatuko da (eraiki ez diren 36 etxebizitzarako edukiera), eta ekipamendu komunitarioaren erabileraren barruan zuzkidura bizitokiak eraikitzeak aukera egongo da, etxebizitza iragankorreko formula gisa. — Osasun zentroaren etorkizuneko proiektua baldintzatzen du, mugimendu eremua definituta geratzen delako. — Eremuaren hegoaldean dagoen bolumenak ez du ibilgailuentzako sarbide zuzenik ondoko bidetik (Cuesta Barbacana). |

Irudi honetan, 2. aukeraren plano ageri da, sustatzaileak emana:



Aurreko aukerak aztertu ondoren, 1. aukera (mugimendu eremua ekipamendu komunitario gisa kalifikatzea) jotzen da onuragarrientzat, hainbat arrazoiengatik. 1. aukeraren helburua Barbacana eremuan osasun zentro bat eta beste ekipamendu batzuk (zuzkidura bizitokiak, esaterako) ezartzea erraztea izango litzateke. Guardiako hirigune historikoaren hego-ekialdeko eremu horretan dagoen gainerako eraikina (lurpeko aparkalekua, egoitza komunitarioa eta urmael zeltiberiarerrako museo bihurtutako espazioa) sendotzeko, hiru eraikuntza unitate (EU) sortuko lirateke, dagozkien hirigintza parametroekin, antolamendu xehatua osatzeko:

- 2.1 EU ekipamendu komunitarioarako izango litzateke, eta sestra gaineko hainbat ekipamendu erabilera eta sestra azpiko aparkalekua baimentzen dira. Sestra gaineko eraikuntza beheko solairua gehi bi solairura mailakatu beharko da, lurzatiaren hegoaldean, eta beheko solairua gehi hirura, iparraldean. Bolumenen behin betiko antolamendua xehetasunezko azterketaren bidez zehaztuko da. Hori, besteak beste, Barbacana kalerantz doan alde zaharreko ertzaren irudia berreskuratzea baldintzatuta egongo da.

- 2.2 EU eta 2.3 EUk erabilera eta eraikuntza baldintzak finkatuko lituzkete.

Hirigintza fitxa partikularizatuan berariaz ezarrita ez dauden alderdietan, "1. eremua: hirigune historikoa" eremurako ezarritako baldintzak aplikatuko dira, osagarri gisa, 58. artikularen ("La Barbacana 2. eremuaren hirigintza-erregulazioa") idazketa berriarekin bat etorritz.

2. Kontsulta aldiaren laburpena

2024ko abuztuaren 13an, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak hasiera eman zion ukitutako administrazio publikoei eta interesa duten pertsoneri kontsulta egiteko faseari, araututako prozedurari jarraituz. Jarraian, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarten zerrenda jarri da, eta haietatik zeinek erantzun duten adierazi da:

| | |
|--|---|
| URA - Uraren Agentzia | √ |
| Eusko Jauriaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza | √ |
| Eusko Jauriaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza | |
| Eusko Jauriaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza | |
| Naturaren Arabako Institutua | |
| Ekologistak Martxan Araba | |
| GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea | |
| Eguzki talde ekologista | |
| Hontza Natura Elkartea | |
| GAIA elkarte | |
| Arabako Mendi Federazioa (Ingurumeneko Atala) | |
| UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartasuna | |
| IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa | √ |
| Aranzadi Natura Zientzien Elkartea | |
| Energiaren Euskal Erakundea | |
| Arabako Kontzejuen Elkartea | |
| SEO Bird Life | |
| Guardiako Udala | |
| Guardia-Arabako Errioxako Kuadrilla | |
| Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua | |
| Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua | √ |
| Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua | |
| Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua | √ |
| Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza | √ |
| Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzua | |
| Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzua | |

Ondoren, jasotako erantzunetan esandakoaren laburpena egin da (Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 24/101 espedientean eta www.araba.eus web orrian dago alegazioen edo gogoeten kopia osoa):

- URA-Uraren Euskal Agentziak, bere txostenean, planaren eremua eta xedea laburbildu eta uren arloko zenbait gogoeta egin ondoren, jakinarazten du hornikuntzari eta saneamenduari dagokienez, hurrengo izapidetze faseetan erakunde kudeatzailearen txosten bat aurkeztuko dela, aurreikusitako ekipamenduaren ur hornidura eta hondakin uren tratamendu egokia bermatzeko dauden azpiegituren nahikotasunari buruzkoa, eta gogorarazten du eremuko saneamendu sarea dagoen udal sarera konektatu beharko dela.

- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak bere txostenean adierazten duenez, mugaketa geografikoa eta lurzoruen erabilerak ikusita, ondorioztatzen da ukitutako azalera hiri lurzoruari dagokiola, eta, hortaz, uste da aipatutako planaren aldaketak ez duela eraginik nekazaritza eskumeneko gaietan.

• Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak bere txostenean dioenez, proposatutako aldaketak ez dauka, eragin arkeologikorik eta, beraz, ez da esku hartze arkeologikorik egin behar. Edozein kasutan, berehala jakinarazi beharko zaio Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailari arkeologia aurkikuntza oro edo arkeologiari eragin diezaiokeen edozein aldaketa eta/edo obra proiektu oro (Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legearen 74. artikulua). Gainera, idatzitako dokumentazioan arkeologiari buruzko kultura araudia jasotzeko eskatzen da:

- Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legea (EHAA, 93. zk., 2019/05/20).
- Ardoaren eta mahastien paisaia kulturala (EHAA, 69. zk., 2021/04/09).
- Laguardiako Hirigune Historikoaren Esparru Arkeologikoa (EHAA, 11. zk., 1997/01/17).

• Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak, bere txostenean, proposatutako aldaketa laburtu ondoren, honako gogoeta hauek egiten ditu:

– “La Barbacana” eremua Guardiako hirigune historikoaren barruan dago, eta kultura ondasun gisa kalifikatuta dago, monumentu multzo izendapenez, ekainaren 11ko 135/2022 Dekretuaren bidez (2002ko ekainaren 28ko EHAA, 122. zk.). Dekretu horren 9. artikulua “La Barbacana” eremuari buruzkoa da.

– 135/2022 Dekretuaren 9. artikuluan eskatzen diren fatxada baldintzak jasota daude jada “1. eremua: hirigune historikoa” eremurako, “2. eremua: La Barbacana” eremuaren hirigintza fitxa partikularizatuan bat etorritz.

– Planteatutako antolamendu berriaren altuerak bat datoz hirigune historikoan gailen direnekin.

- Proposatutako bolumenak luraren topografiara egokitzen dira.

Hori dela eta, ondorioztatzen da Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak ez duela inolako eragozpenik izapidetzen jarraitzeko.

• IHOBEn Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak, planaren laburpena egin ondoren, adierazten du eremuan ez dagoela lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan sartutako lurzatirik. Kutsadura aztarnarik antzemanez gero, Lurzorua Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzeko 4/2015 Legearen 22. artikulua betetzeko, gertaera horren berri eman beharko zaio Ingurumen Sailburuordetzari. Orobat, ingurumen agiri estrategikoan aipatutakoaz gain, plan bereziaren dokumentuan klima aldaketaren ikuspegia sartzea iradokitzen da, antolamendu irizpideen eta klima aldaketaren arteko lotura indartuz, eta, horretarako, lurzorua babesteko zenbait neurri proposatzen dira. Azkenik, jakinarazten da interesgarria litzatekeela istripu larrien edo hondamendi naturalen arriskua baloratzea; horretarako, dokumentu jakin batzuk kontuan hartzea gomendatzen da.

• Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak, bere txostenean, plana eta horrek kultura ondarearen gainean dituen ondorioak aztertu ondoren, honako hau ondorioztatzen du:

– Arkeologia: dokumentuan jaso beharko da 1999ko martxoaren 24ko Aginduan baztertu gabeko eremuaren zati bat (urmael zeltiberiarra, harresia eta tarteko espazioak) Guardiako Hirigune Historikoaren Esparru Arkeologikoaren barruan dagoela.

– Arkitektura: eremu osoa Guardiako hirigune historikoaren monumentu multzo kalifikatuaren barruan dago, eta, beraz, edozein esku hartze arkitektoniko bateragarria izan beharko da hiribilduaren eta haren elementuen izaerarekin; orduan, 6/2019 Legearen 38.2 artikulua arabera, osasun zentroaren diseinuan arreta berezia jartzea gomendatzen da, hura integratuko den paisaia, hiri eta arkitektura testuinguruari eusteko.

3. Ingurumen balorazioa. Ingurumen inpaktu nagusiak

Guardiako HHBPBaren aldaketa puntualaren eremua udalerriko hiri lurzoruan dago, eta ez dator bat babestutako naturaguneekin, ezta katalogatutako fauna espezieen interes bereziko eremuekin ere. Onura publikoko mendiei, igarobide ekologikoei eta katalogatutako paisaiei ere ez lieke eragingo.

Sustatzaileak aurkeztutako agirietan bertan jasota dagoen moduan, eta zehazki ingurumen agiri estrategikoan, HHBPBaren aldaketa puntuala denez, ez da aurreikusten ingurumenean kalte nabarmenik eragitea. Alde batetik, tokiko beharretara egokitutako osasun zerbitzu egokiak emateko hirigintza egokitzapena ahalbidetzeak, jakina, eragin positiboa izango du udalerriko eta inguruko zerbitzu soziosanitarioetan, eta joan-etorri motordunak murriztuko ditu. Bestetik, posible izan liteke Guardiako HHBPBaren aldaketa puntuala behin betiko onestearen ondorioz eraikinetan obrak egin ahal izatea, baimendutako erabileretara egokitzeko edo eraikin berriak eraikitzeak. Erreferentziako plana onartzearen ondorioz ingurumen inpaktu jakin batzuk sortzea eragin dezaketen ekintzak eraikinak birgaitzearen ondoriozkoak izango liriateke, batez ere. Horrenbestez, nahitaez kendu beharko liriateke elementu batzuk (eraikuntza eta eraispen hondakinak), aurreikusitako eraikuntza prozesua gauzatzeko baliabideen kontsumoa, energia kontsumoa eta kontsumo horri lotutako emisioak.

Hori dela eta, Guardiako HHBPBaren aldaketa puntual hau onestearen ondorioz egin daitezkeen konponketa, mantentze eta eraikuntza obrak eremuan dauden landare espezie exotiko inbaditzaileen ugalketaren gaineko inpaktuak minimizatzeko moduan egin beharko dira (adibidez, Ailantoa, hau da, *Ailanthus altissima*). Gainera, lanen ondorioz sortzen diren hondakinak era desegokian kudeatzeak ekar litzakeen ondorio kaltegarriak zeharo saihestu beharko liriateke.

4. Ondorioa. Ingurumen baldintzak

Ingurumen agiri estrategikoaren 14. atalean (“Aldaketa puntuala aplikatzeak ingurumenean eragin dezakeen edozein ondorio negatibo prebenitzeko, murrizteko eta, ahal den neurrian, zuzentzeko aurreikusitako neurriak, klima aldaketa kontuan hartuta”) jasotako ingurumen integrazioko neurriez gain —batez ere, jarduketa eremuko eraikinetan irizpide ekologikoak aplikatzera bideratutakoak (baliabideak, kontsumoak eta kutsadura murriztea)— eta sustatzaileak ingurumen ebaluazioaren prozeduraren kontsulta egiteko fasean jasotako alegazio txostenetako oharrei kasu egiteko duen beharraz gain, honako baldintza hauek ezartzen dira, Guardiako HHBPBaren aldaketa puntualerako hirigintza dokumentuaren araudian sar daitezten:

- Edozein obra jarduketa hasi aurretik, proiektuaren eremuan dauden landare espezie exotiko inbaditzaileak ezabatuko dira, bereziki ailantoa (*Ailanthus altissima*).

- Guardiako HHBPBaren aldaketa puntuala garatzeko jardueren ondorioz egin litezkeen konponketa, mantentze eta eraikuntza lanak gauzatzeko aldirian, ontzi estankoa, tanga iragazgaitzak edo bestelako sistemak jarri beharko dira lubrifikatzaileak edo erregaiak biltegitratzeko, eta debekatuta dago erabilitakoak isurtzea. Kudeatzaile baimendu bati emango zaizkio halakoak. Debeku hori beste hauetara ere hedatzen da: hormigoizko hondakinak, eraikuntza materialak, sor daitezkeen lurrak eta abar; horiek guztiak hondakindegia edo zabortege baimenduetara eraman beharko dira. Ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan adierazi bezala kudeatu beharko dira eraikuntza eta eraispen hondakinak. Dekretu horrek eraikuntza eta eraispen hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu.

Azaldutako guztian oinarrituta, Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko foru diputatu gisa eman zaizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehen. Guardiako Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren aldaketa puntualari buruzko (“2. eremua: La Barbacana”) ingurumen txosten estrategikoa ematea.

Bigarrena. Ingurumen txosten estrategikoa nahitaezko txosten loteslea izango da, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 75.1 artikulua arabera.

Hirugarrena. Ingurumen txosten estrategikoak indarraldia galduko du eta ondorioak sortzeari utziko dio baldin eta ALHAOn argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita lau urteko epean plana edo programa egiten edo onesten hasi ez badira, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 75.5 artikulua betez. Kasu horretan, lege horren 75.6 arti-

kuluaren arabera, sustatzaileak berriz ere hasi beharko du proiektuaren ingurumen inpaktuaren ebaluazioaren prozedura, salbu eta indarraldia luzatzeko eskatzen ez badio ingurumen organoari. Kasu horretan, ingurumen organoak, hala badagokio, ingurumen txosten estrategikoaren beste indarraldi bat emango du, erregelamenduz ezarriko den moduan.

Laugarrena. Agintzea ingurumen txosten estrategiko hau ALHAOn argitara dadila.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 9a

Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko foru diputatua

SARAY ZÁRATE FERNÁNDEZ DE LANDA

Natura Ingurunearen zuzendaria

MARIA JOSÉ MADEIRA GARCÍA